

## 48. ALDIZKARIA - 2017ko martxoaren 9a

### 30. ordenantza

#### Udal ordenantza, Eremu publikoan terrazak, beladoreak eta merkataritzari nahiz ostalaritzari loturiko bertzelako elementuak paratzea arautzen duena

Barañaingo Udalak, 2016ko azaroaren 24ko osoko bilkura arruntean, erabaki zuen hasiera batez onestea Eremu publikoan terrazak, beladoreak eta merkataritzari nahiz ostalaritzari loturiko bertzelako elementuak paratzea arautzen duen udal ordenantza.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325.1.b) artikuluko aginduei jarraikiz, onespren horren iragarkia 2016ko 237. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, abenduaren 12an, bai eta Barañaingo Udalaren iragarki oholean paratu ere, eta espedientea 30 egunean egon da jendaurrean.

Jendaurrean egoteko legezko aldia iraganik inork inolako alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu gabe, eta aipatu foru legearen 325.1.c) artikulua bukaerako aginduen ondorioz, behin betiko onetsizat jotzen da, eta eranskinean argitaratzen, Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 326. artikuluari jarraikiz.

Argitara ematen da aipatu agindua bete beharrez, eta ohartarazten ezen honako erabaki honen aurka –xedapen administratiboa baita– ezin dela administrazio bidean errekurtsorik paratu, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 112.3 artikuluari jarraikiz. Hortaz, behin betiko onespren honen aurka ondoko bideetakoren bat erabiltzen ahalko da:

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, zuzenean, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.b) artikuluari jarraikiz, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina.

b) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita.

Barañainen, 2017ko urtarrilaren 27an.–Alkatea, Oihane Indakoetxea Barbería.

## ERANSKINA

### EREMU PUBLIKOAN TERRAZAK, BELADOREAK ETA MERKATARITZARI ETA OSTALARITZARI LOTURIKO BERTZELAKO ELEMENTUAK PARATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

#### I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

##### 1. art. Xedea.

Ordenantza honen xedea da Barañaingo udal mugapearen barrenean dauden jabari publikoko eta erabilera publikoko lurren aprobetxamendu bereziaren araubide juridikoa ezartzea, lur horiek aldi baterako okupatzen direnean dela terrazekin, dela mahaiekin, dela ostalaritzako nahiz merkataritzako establezimenduen jardueren osagarri diren bestelako elementuekin.

##### 2. art. Aplikazio-eremua.

Ordenantza hau erabilera publikoko espazio guztiei aplikatuko zaie (karrika, plaza, barneko patio, espazio libre, berdegune eta abarrei), titulartasun publikokoak edo pribatukoak izan. Erabilera publikoa dutela erabakiko da bai izatezko egoerari begira bai indarreko planeamenduko determinazioen aplikazioari begira.

##### 3. art. Definizioak.

Ordenantza honen ondorioetarako, zenbait elementu bereizgarri hartzen dira aintzat:

–**Terraza**: lurzoru publikoko eremua, mahaia, aulkiak, mahai garaiak, upelak, tabernako aulkiak eta establezimenduaren barnean egiten diren ostalaritzako jardueri loturiko beste elementu batzuk jarritz, behin behinekoz aprobetxa daitekeena eta establezimendu horren osagarria dena.

–**Mahaia**, aulkiak eta bankuak, upelak eta tabernako aulkiak: kontzeptu horretan sartzen dira establezimenduak, ostalaritzako jardueran diharduela, bezeroen esku uzten dituen elementu eramangarri guztiak, dela esertzeko dela kontsumizioak gainean jartzeko.

–**Babesteko elementuak eta haize-babesak**: kontzeptu horretan sartzen dira terrazak hartutako eremua mugatzeko eta perimetroan kokaturiko altzariak babesteko diren elementuak, establezimendukoek ekipamendu horiek beren kabuz eraman baditzakete eta ordenantza honetan haientzat ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

–**Beladoreak**: kontzeptu horretan sartzen dira itxiturako elementuei eusten dien egitura eramaile batek eta haren osagarriek (kontrapisuak eta abar) eratutako elementuak, terrazak hartutako espazioaren bolumena mugatzeko badira, eta ordenantza honetan haientzat eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

–**Eguzki-babesak edo eguzkitakoak**: kontzeptu horretan sartzen dira terrazaren erabiltzaileak eguzki izpietatik babesteko elementu guztiak; batzuk eramangarriak dira (eguzkitakoak) eta beste batzuek egitura autosostengatzailea eta desmuntagarria dute (eguzki-babesak).

–**Eguzki-oihalak**: terraza instalazio guztietan paratzen ahalko dira dagokien eraikinaren fatxadan lotutako eguzki-oihal hedagarriak, terrazaren erabiltzaileak eguzki izpietatik babesteko. Eguzki-babesak eta eguzkitakoak ez bezalakoak dira, azken horiek ezin direlako inola ere eraikinaren fatxadan lotu.

–**Berogailuak**: kontzeptu horretan sartzen dira terrazak hartzen duen eremua berotzeko diren elementu guztiak; bai berogailu eramangarri autonomoak bai fatxadari erantsitako berogailuak, haiek erabiltzen duten energia iturria kontuan hartu gabe, betiere erabilera horretarako behar bezala homologatuta badaude.

–**Galtzadako osagarriak**: kontzeptu honetan sartzen dira erraz desmunta daitezkeen elementuak, espaloï bat handitzen laguntzen dutenak, terraza bat errazago jartzeko haien gainean.

#### **4. art. Muga orokorrak.**

**4.1.** Terrazak edo beladoreak paratzeko eskubidea izateko, nahitaezko baldintza izanen da Udal Ogasunarekin zorrik ez izatea jardueraren eta/edo jarduera gauzatzen den establezimenduaren ondorioz, eta orobat asotsari buruzko araudia ez betetzeagatik zehatua ez izana, administrazio ebazpen irmoaren bidez, eskabidea aurkeztu aitzineko hiru hilabetean.

**4.2.** Halaber, interes publikoaren arrazoiak direla eta, Udalak edozein momentutan eta kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortu gabe kentzen ahal ditu baimenak, geroago onetsitako baldintza orokorrekin bateraezinak direnean, jabari publikoari kalte egiten diotenean, interes publiko handiagoko jarduerak galarazten direnean edo guztien erabilera tratatzen denean, baita baimenaren baldintzak betetzen ez direnean ere, kasu honetan jartzen diren zehapenak deusetan galarazi gabe. Baimenenak aldi baterako eteten ahalko dira, Udalak sustatu edo baimendutako besta, kultur, gizarte edo kirol jarduerak egiten badira. Hori guztia, ordenantza honen 20. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**4.3.** Terraza eta beladoreek, betiere, honako hauek libre utzi beharko dituzte, berehala erabili ahal izateko:

–Higiezin eta garajeetarako sarbideak.

–Larrialdietarako irteerak.

–Garraio publikoaren geralekuak.

–Lurpeko aparkalekuen arnasbideak.

–Oinezkoendako pasabideak.

**4.4.** Eguzkitakoak eta berotzeko ekipamenduak, halakorik bada, baita terrazaren gainerako elementuak ere, ez dira finkagailuen bidez zoladuran lotzen ahalko.

**4.5.** Terraza edo beladorea ez da inola ere lorategi moduko azalera paratzen ahalko.

**4.6.** Terrazak eta beladoreak paratzea debekatzeko bertze arrazoi batzuk izan daitezke, behar bezala arrazoituz gero, bide segurtasuna edo oinezkoen trafikoari nabarmenki egiten dioten traba, irisgarritasuna edo segurtasuna (eraikin eta lokal hurbilen hustuketa, hiri ekipamendu edo altzariak erabiltzea galarazi edo larriki tratatzea edo interes publikoko gisako bertze inguruabar batzuk).

**4.7.** Baimenak emateko, betiere, ondoko etxebizitza edo lokaletan ez dira erregistratu behar kutsadura akustikoaren arloan indarra duen araudian ezarritakoak gainditzen dituzten soinu mailak.

#### **5. art. Baimenak.**

**5.1.** 3. artikuluan zehaztutako instalazioak ezarri baino lehen udal baimena eskuratu beharko da ordenantza honetan eta sektoreko araudi aplikagarrian xedatutakoari jarraikiz.

**5.2.** Alkatetzari dagokio ordenantza honetan araututako baimenak emateko eskumena, ezertan ukatu gabe indarreko araudiaren arabera hark egin dezakeen delegazioa.

**5.3.** Terrazaren baimen agiria eta ezarritako elementuen homologazioak, edo haien fotokopia, jarduera egiten den tokian egon beharko dira, betiere erabiltzaileek eta herritarrek garbi ikusteko gisan, eta udal agintarien eskura.

**5.4.** Organo eskudunak onetsitako baimenean honako alderdi hauek jasoko dira, gutxienez ere: baimenduriko espazioaren neurriak, funtzionamendu orduak, kokalekua, baimendutako zer elementu dauden eta zenbat eta nolakoak diren, eta erabilera mugatzen duten baldintzak.

## **II. TITULUA. INSTALAZIOEN BALDINTZAK**

### **1. KAPITULUA. Baldintza orokorrak**

#### **6. art. Ohar orokorrak.**

**6.1.** Eremu publikoan terrazak eta beladoreak paratzen direnean, ordenantza honetako baldintzak eta erabilerak errespetatu behar dira.

**6.2.** Ordenantza honetan arautzen diren baimenak lurren okupazioari baizik ez dagozkio; beraz, Udalak ez die ez onarpenik ez oniritzik ematen egiten diren jardueri, eta ez da terrazaren eta beladoreen erabileren ondorioz pertsoneri eta ondasunei etortzen ahal zaizkien kalte-galeren erantzulea izanen.

**6.3.** Erabilera publikoko eremuetan eskatzen diren instalazioen kasuan, titulartasun pribatua behar bezala aitorturik badute, kasu bakoitzean eremu mota horretarako ezartzen den erabilera eta baimen araubidea bete beharko da.

**6.4.** Arau orokor gisa, debeku da honelako elementuak paratzea:

a) Uraren eta/edo saneamenduaren harguneak, beladorean beste barra bat muntatzea ekar dezaketenak.

b) Salmenta-makinak, salgaia zeinahi delarik, eta edariak edo jakiak prestatzeko instalazio osagarriak.

c) Musika eta/edo soinu ekipoa instalatzea. Telebistak para daitezke, baldin eta bolumenik ez badute.

d) Josteta makinak instalatzea.

**6.5.** Arau orokor gisa zilegi izanen da:

a) Beladorea atxikirik duen establezimendutik ateratzen diren hargune elektrikoak, lur azpitik joanen direnak, babesturik eta seinalezaturik (hormigoizko prisma). Hargune horrek bere babesa izanen du (magnetotermikoa eta diferentziala) eta argiak nahiz berokuntza/aireztapen sistemak elikatuko ditu.

b) Errekuntzan oinarritzen ez diren berokuntza sistemak, hala nola pantaila infragorriak. Unitateak kanpoaldean paratzera behartzen duten berokuntza elementuak debekaturik egonen dira.

c) Ateratze-sistemak paratzea, barneko airea berriztatzea ekartzen dutenak, baldin eta unitateak kanpoaldean paratzera behartzen ez badute.

## **6.6. Itxituretarako mugak.**

Honelakoetan, udal organo eskudunak itxituretarako eskabidea ukatzen ahalko du:

1. Bide segurtasunari kalte egiten, oinezkoen joan-etorria nabarmen tratatzen eta hiri irisgarritasuna galarazten dutelarik.
2. Eraikin eta lokal hurbiletako segurtasunari eragiten diolarik.
3. Formaz ingurunearekin egokia ez delarik edo bat etortzen ez delarik, edo hiri paisaiaren irakurketa zuzena zailtzen duelarik.
4. Haren luzetarako garapena establezimendu interesdunari dagokion fatxadaren luzera baino handiago delarik.
5. Lur azpian elementuak egonda, komenigarria ez denean.

## **6.7. Galtzadaz bereizitako terrazak eta beladoreak.**

Salbuespenez, lizentzia ematen ahalko da beladoreak dituzten terrazak paratzeko establezimendutik eremu publikoko galtzada batez bereizirik daudela. Zerbitzuari sostengu emateko mahai osagarri bat paratzeko baimena ematen ahalko da halakoetan.

Txosten teknikoek arrazoitu beharko dute proposamena salbuespena dela, interes publikoa duela eta bizilagunei trabarik ez zaiela egiten.

**6.8.** Debeku dira arrunt zuzeneko emanaldiak, baita ikus-entzutezko ekipoak paratzea edo audioa edo bideoa erabiltzea terrazetako eremu eta instalazioetan.

## **6.9. Jarduteko ordutegia.**

Terraza edo beladorea lotuta duen jarduera nagusiaren baimendutako ordutegia edozein dela ere, jarraian ezartzen diren denbora mugak beteko dira terraza eta beladore zerbitzuan:

- a) Jaiegunen bezperetan, jaieguneko goizaldeko 1:00a arte.
- b) Gainerako egunetan, 23:00ak arte.

Herriko bestetan eta bestelako egun berezietan, funtzionamendurako bestelako ordutegi batzuk finkatzen ahalko ditu Udalak.

## **2. KAPITULUA. Beladoreak paratzeko berariazko baldintzak**

### **7. art. Okupatzeko moduak.**

**7.1.** Lokal edo establezimendu bakoitzean itxitura egonkor bakarria baimenduko da.

**7.2.** Egituraren kanpoko gehieneko garaiera 2,80 metro izanen da. Itxiturearen barnean gutieneko garaiera 2,5 metro izanen da.

**7.3.** Arau orokor gisa, establezimendu nagusia zer eraikinetan dagoen, haren fatxadaren luzera okupatuko da gehienez ere. Elementua zer eremu publikotan kokatzen den, horren baldintzetara egokituko da zabalera. Oinezkoentzako eremuetako itxiturak homogeneoak izanen dira, baldintza estetikoak egokiak izan daitezzen.

**7.4.** Beladore itxia paratzeko interesa duten establezimenduek obra lizentzia eskatu behar dute. Horretarako, kasuan kasuko exekuzio proiektua aurkeztu behar dute, non bilduko baitira beladorearen plano kotatuak (oin-planoa, sekzioak eta altxaerak) eta kokatze plano kotatuak, agertzen dutenak eremu publikoko gainerako elementuekiko eta inguruneko eraikuntzekiko harremana, baita ukipen bat jaso dezakeen beste edozein elementuarekiko harremana ere. Ondokoa ere sartu beharko da: egin gogo den instalazioa deskribatzeko kasuan kasuko argazki-lana, beladorearen eraikuntza xehetasunak (batik bat zoladura gaineko euskarri dagokienez), eta elurraren eta haizearen kontra beladorea egonkorra dela frogatzen duen justifikazioa, idazkari eskudunak sinatua.

## **8. art. Terraza paratu gogo den eremuaren baldintzak.**

Titulartasun eta erabilera publikoko lurretan, beladore itxiak paratzeko baimena emanen da, baldintza hauek betetzen badira:

a) Espaloietan: okupazioaren ondoan oinezkoen joan-etorrietarako espazioaren gutxieneko zabalera 1,80 metrokoa da, espaloia txikiagoa delarik izan ezik, halakoetan aztertuko baita okupazioa bideragarria den edo ez.

b) Okupazioak lerrokadura jarraitua izanen du, okerrunerik gabe etxe-sail baten lerro osoan.

c) Lorategi moduko azaleretan ez da itxiturarik paratzeko baimenik emanen.

d) Eremu batek itxitura bat paratzeko baldintza guztiak beteta ere, Udalaren txosten teknikoari jarraitu beharko diote beladorearen azken neurriek. Arrazoiak emanda murriz daitezke neurri horiek, oinezkoen joan-etorria edo hiri irrisgarritasuna errazteko, edo interes publikoko bertze edozein inguruabar gertatzen bada.

e) Itxituren diseinua bakarra izanen da ingurune berdinetarako (plazak, hiribideak, pasealekuak etab.) eta materialek ongi emanen dute inguruarekin. Ematen den lehenbizikoaren bidetik joanen dira gainerakoak.

f) Tabakismoaren kontrako osasun neurriak finkatu eta tabako-produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen indarreko araudian ezarritakoa errespetatuko da.

## **9. art. Beladorea paratzeko baldintzak.**

**9.1.** Beladoreak erraz desmuntatzeko modukoak izanen dira, eta espaloi gainean paratuko dira, hartan finkatu gabe. Salbuespenez baizik ez dira espaloien gainean finkatuko, betiere bestela ezin dela egin arrazoitu ondoan. Finkagailu horrek bertzerik gabe ekarriko du fidantza ezartzea; hura Udalaren zerbitzu teknikoek zehaztuko dute, proiektuaren arabera, eta ez du galaraziko kendu beharra Udalak eskatuz gero. Behin kenduta zoladura lehengoratu beharko da eta, Udalaren oniritzia bilduz gero, fidantza itzultzeko eskatzen ahalko da. Finkagailu mota horrek baldintza hauek bete beharko ditu:

–Zimendurik ez izatea (bakartua edo jarraitua izan), eta ainguratzeak lurrean iltzaturik egotea, gehiagorik ez.

–Ezein elementu ezin da beladoreak okupatutako eremutik irten, eta ezin die arrisku egoerarik sortu oinezkoei (hala nola, behaztopatzea edo erortzea).

–Bermatu behar da beladoreak behar adinako egonkortasuna duela haizearen, elurraren eta abarren kontra.

**9.2.** Itxituren gainean ez da publizaterik onartuko, soil-soilik establezimenduaren logotipoa edo izena, behin bakarrik eta tamaina egokian agertzen bada.

**9.3.** Nolanahi ere, itsuek identifikatzeko modukoa izanen da beladorearen itxitura.

**9.4.** Itxiturak finkoak edo mugigarriak izaten ahalko dira, gardenak edo mistoak (zokalo opakua eta gainerakoa gardena), baina betiere egokiturik ingurunearen baldintzetara. Ez dago justifikaturik eremuan ez dauden akabera materialak erabiltzea. Aurkeztutako proiektu teknikoari eta lizentziako baldintzei jarraitu beharko zaie muntaketan. Teknikari eskudun batek egingen du, obrako zuzendaritzaren ziurtagiria beharrezkoa baita. Bertan, jasoko da paratutako beladorea egokia den erabiltzeko eta gaitasuna duen paira ditzakeen esfortzuei eusteko.

Itxitura horien elementuak metalikoak izanen dira lehentasunez (altzairu herdoilezina, altzairu galbanizatua eta margotua, aluminio lakatua edo anodizatua). Salbuespenez, zurezko egiturazko elementuak onesten dira, pintatuak badaude.

Kolorea duten akaberen kasuan, Udaleko zerbitzu teknikoek ikus-onetsia eman beharko dute.

**9.5.** Debekaturik daude diseinu opakua dituzten itxiturak edo zokoak eta bazterrak sortzen dituztenak. Espazio irekiak eta ikusten uzteko modukoak izanen dira nagusi.

### **3. KAPITULUA. Terrazak paratzeko berariazko baldintza**

#### **10. art.**

##### **10.1. Terraza paratzea:**

a) Terraza paratzeko lekurik egokiena zein den erabakitzea Udalarari dagokio. Orokorrean, establezimendu nagusia zer eraikinetan dagoen, harexen fatxada bezainbat izanen da okupazioaren luzera. Nolanahi ere, terrazak beste nonbait kokatzea baimen daiteke, txosten teknikoa egin ondoan, toki horren ezaugarriek horretarako bide ematen badute.

b) Nahiz eta eremu batek baldintza guztiak bete terraza bat paratzeko, debekua jaso dezake edo eskatu baino tamaina tikiagokoa paratzeko baimena, lehentasuna emanik interes orokorrari interes partikularraren gainetik.

c) Terrazaren kokalekuak ez du inolaz ere tratatuko ondoan diren finketako atarrietatik galtzadara ateratzea, ez eta ibilgailuen sar-aterak zaildu ere, legez baimenduak diren pasabideetan barna.

d) Bermatu beharko da beti Udalaren zerbitzu eta ekipamenduen sarrera eta zerbitzu konpainietakoa, eta hori egunean 24 orduz.

e) Eremu gorapetuak oinezkoendako dira, eta horietan debeku da terrazak paratzea.

f) Lokalaren jabeak du ardura bezeroek terraza heda ez dezaten muga baimenduetatik at.

##### **10.2. Estetikako baldintzak:**

a) Udalak instalazioa paratzeko eskabideari ezetza ematen ahal dio, ingurunearekin egokia ez delarik edo bat etortzen ez delarik, hori guztia hiriaren estetika begiratu beharrez.

b) Altzariak metalezkoak baldin badira, gomazko babesgarriak edo neoprenoak beharko dira paratu bai aulkietako hanketan baita mahaietakoetan ere.

c) Terrazan erabili beharreko elementuek bat egin beharko dute haren ingurunearekin.

Ondorio horietarako, eta eremu publikoarekin bat egiteko ahalik eta esku-hartze gutxieneko irizpideei jarraikiz, instalazioaren sustatzaileek aurretik aurkeztu beharko dizkiete udal zerbitzu teknikoei haien proposamenak, haiek balora dezaten, aipatutako irizpideen arabera.

Proposamenak behar bezala zehaztuko dira, haien alderdi estetikoei dagokienez (koloreak, erabili beharreko materialak eta abar), eta hamabost eguneko epean erantzunen zaie.

Epea hori udal zerbitzu teknikoek espresuki erantzun gabe iraganez gero, hori aldekoa dela ulertuko da, bakarrik instalazioen ezaugarri estetikoan ondorioetarako.

### **10.3. Hornigarriek bete beharreko baldintzak.**

a) Eguzkitakoen baldintzak.

Eguzkitakoak paratzeko baimena ematen ahalko da, baldin eta ez badira inola ere okupatzeko baimendutako espaziotik harata ateratzen, eta beren garaiera dela-eta oinezkoendako arriskurik ekartzen ez badute. Elementu horien egitura sendoa eta segurua izan beharko da jendeendako; gainera, oihalezkoak izanen dira, hiri inguruarekin bat egiten duen kolore leunekoak, eta aise biltzeko manerakoak.

Haizea harrotzen denean eguzkitakoak tolestu eta bildu beharko dira, haren abiadura baldin bada egileak segurtasun baldintzak mantentzeko gehienekotzat jotzen duena edo handiagoa.

b) Eguzki-oihalen baldintzak.

b.1. Elementu bat ere ez da aterako terrazarako baimendutako eremutik.

b.2. Eguzki-oihala elementu isolatua izan beharko da, hau da, ez du atal komunik izanen mugatzeko edo babesteko beste elementu batzuekin (itxitura, bereizgarri, eguzki-babes, haize-babes edo antzekoekin), eta ez da inola era lotuta egonen terrazako beste elementuekin.

b.3. Baimendutako ordutegitik kanpo, eguzki-oihalek bilduta egon beharko dute.

## **4. KAPITULUA. Segurtasun baldintzak**

### **11. artikulua.**

Terraza edo beladorea osatzen duten elementuek ez dute arriskurik ekarriko, titularra arriskuak saihesteaz arduratuko baita horiek funtzionatzen dutenean, baita baimena eskatzean ere, hori bermatzen duten dokumentuak aurkeztuta. (Proiektua haize-kargen kalkuluekin, altzari erregaiak ez pilatzea eta abar).

### **12. artikulua.**

Berogailuak paratzera baimenduta egonen da, ondotik ematen diren baldintzei lotuz gero eta, betiere, Nafarroako Gobernuan eskuduna den departamentuak homologaturik badaude.

Paratzen den berogailu modeloak gas aparatuen gainean indarra duen araudia bete beharko du. Erregai likidoz edo gazez hornitutako berogailuak eramangarriak izanen dira.



Nolanahi ere, berogailuaren egitura babesturik egon beharko da karkasa edo gisako batekin, propano gasa daukaten elementuen manipulazioa galarazteko.

Argindarrez elikatzen den berogailua izanez gero, sarerako hargunea lurpean egon beharko da; behar den udal lizentzia izan beharko du horretarako.

Kanpoko berogailuak paratzeko proportzioa lau mahai baimendutik bat izanen da gehienez.

Berogailu horiek paratzeko denboraldia azarotik apirilera izanen da.

Terrazari baimendutako ordutegiarekin kendu beharko dira eremu publikotik eta ordezeko ontziak ezin dira kalean pilatu.

Terrazan edo beladorean ezin izanen dira su hartzen ahal duten elementuak paratu edo bildu, plastikozkoak edo beste edozein gaiz eginak direnean.

### **13. artikulua.**

Ikusmen-desgaituek hauteman ahal izateko, terrazako elementuen zati bat ere ez da aterako baimendutako eremutik kanpo; orobat, ez da onartuko baimendutako eremuaren perimetroan elementuak jartzerik (elementu mugatzaileak, haize-babesak, itxiturak edo eguzki-babesak), baldin eta haien azpiko ertza 15 zentimetro baino distantzia handiagora badago zoladuratik. Arrazoi beragatik, elementu hauetako bakoitzaren gutxieneko garaiera 90 zentimetrokoa izanen da, zoladuratik gora, eta elkarren jarraian dauden elementuen arteko distantzia 15 zentimetrokoa izanen da gehienez.

## **III. TITULUA. UDAL LIZENTZIAREN ARAUBIDE JURIDIKOA**

### **14. art. Udal lizentzia.**

**14.1.** Terrazak, beladoreak edo bertzelako elementuak eta osagarriak paratu baino lehen udal baimena beharko da. Udalaren organo eskudunak emanen du baimen hori, ordenantza honetan araututako baldintzei jarraikiz.

**14.2.** Indarreko araudiaren arabera, taberna, kafetegi, jatetxe, taberna berezi eta ikuskizunetarako kafetegi kategoria duten establezimenduei baino ez zaie baimenduko terrazak eta beladoreak paratzea. "Kafea dastatzeko" establezimenduei ere ematen ahalko zaie terrazak eta beladoreak paratzeko baimena.

### **15. art. Terrazaren eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak.**

Interesdunak dagokion eskaera bete beharko du Erregistro Orokorrean, dokumentazio hau erantsita:

1. NANaren fotokopia.

2. Erantzukizun zibileko aseguria sinatu izanaren egiaztagiria, bermeen estaldura 300.000 eurokoa duena.

Eskaeran, adierazi behar da upelak, mahai garaiak edo antzeko elementuak paratu gogo diren. Eremu publikoaren okupazioaren tasa kalkulatzeko ondorioetarako, irizpide orokorra izanen da upel edo mahai garai 1ek metro koadro bat okupatzen duela, eta upel edo mahai garai batek eta aulki batek edo bik, berriz, 2 metro koadro.

Eskaera eginda, udal zerbitzuek, eskatzailearen aurrean, udaltzaingoarekin koordinatuta eta horien jarraibideak betez, tokiaren gainean markatuko dute, argi eta zehazki,

gehienez zer azalera okupatzen ahal den. Neurketaren akta eginen da, bertaratutakoek sinatua. Bertan, zehaztuko da zenbat metro koadro baimentzen diren eta zein den kasuan kasuko tasen likidazioa.

Terrazaren mugak zehaztu ondoan, gutxienez kasuan kasuko urtea bukatu arte izanen dira baliagarriak. Hartara, hurrengo urtera arte ezin izanen da eskatu haiek aldatzeko.

#### **16. art. Beladore baten eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak.**

Interesdunak dagokion eskaera bete beharko du Erregistro Orokorrean, dokumentazio hau erantsita:

1. NANaren fotokopia.
2. Erantzukizun zibileko aseguru sinatu izanaren egiaztagiria, bermeen estaldura 300.000 eurokoa duena.
3. Exekuzio proiektua, ordenantza honen 7.4 artikuluan aurreikusitako baldintzetan.

#### **17. art. Baimenaren ebazpena.**

**17.1.** Ordenantza honetan zehaztu bezala eskabidea egin eta dokumentazio guztia aurkeztu ondotik, eta seinalizazioaren akta egin ondoren, legez ezarritako epeetan emanen da ebazpena.

**17.2.** Udalak jakiten badu baimenaren eskatzailea, eta behar den udal lizentziaren titularrak, ez dela egiazki jardueraz arduratzen dena, ezezkoa emanen dio baimenari. Eskatzaileak Udalarekin zorren bat edo bertze duenean ere, baimenean atzera eginen da.

**17.3.** Eskabidea, eskatutako agiri guztiekin batera, Udalaren Erregistroan aurkeztu ondoren berariazko ebazpena eman eta jakinarazi gabe bi hilabeteko epea iraganik, interesdunak ulertzen ahalko du hori ezetsi dela isiltasun administratiboaren bidez.

#### **18. art. Lizentziaren baldintzak.**

**18.1.** Lizentziaren agirian instalazioaren eta elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira, hala nola, hartuko duten azalera, baimenaren indarraldia eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako alderdiak.

**18.2.** Lizentzia behin-behinekoa izanen da beti eta organo eskudunak baimendutako instalazioak eremu publikotik kentzeko agintzen ahalko du trafikoko, urbanizazioko edo interes orokorreko bertze edozein inguruabarrek hartara eramanez gero. Gastuak titularraren kontura izanen dira, kalte-ordainetarako eskubiderik ez duela.

**18.3.** Lizentziaren titularrak konpondu beharko ditu okupatutako eremuan instalazioaren ondorioz gertatzen diren kalte guztiak, eta ukitutako zoladura lehengoratu beharko du. Bestela, betebehar hori eskatzen ahalko da nahitaezko betearazpeneko prozeduraren bidez, jarritako fidantzaren kargu.

**18.4.** Lizentzia eskuratuta eta tasa ordainduta, lizentzian zehazturiko espazio publikoko puska erabiltzeko ahalmena izanen du titularrak.

**18.5.** Aldameneko eraikinean edo establezimenduaren eraikin berean jarritako aldamiok eta/edo markesinek terrazari eragiten diotenean, udal agintaritzak ezezkoa eman diezaiolke terrazaren instalazioari.

**18.6.** Baimenek ostalaritzako establezimenduetako titularrei terrazak edo beladoreak paratu eta zuzenean ustiatzeko ahalmena ematen diete; ezin dira, hortaz, ez errentan eman ezta hirugarrenei inola ere laga ere.

#### **19. art. Indarraldia eta berritzea.**

Baimenak urtekoak edo sasoikoak izan daitezke.

Sasoiko okupazio baimenaren indarraldiak urte bakoitzeko maiatzaren 1etik urriaren 31ra arte iraunen du.

Urteko baimenaren indarraldiak urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte iraunen du.

Ordenantza honetan aurreikusitako berritzeko araubidea beteko dute.

**19.1.** Lizentziak gehienez ere hamabi hilabeterako emanen dira, eta zein urtetan ematen diren, ezin dute inola ere urte natural hori gainditu. Indarraldiak ez du etenik izanen, salbu eta negozioa uzten bada edo terrazaren titularrak uko egiten badu berariaz. Halakoetan, Udalari egin behar zaio jakinarazpena.

**19.2.** Oro har, baimena automatikoki berrituko da urtero, baldintza berberetan ez badago aldaketarik egiten terrazan edo beladorean eta baimenerako eskubidea izateko ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen jarraitzen badira. Horrek esan nahi du terraza berriz para daitekeela eta beladoreari euts dakiokela, baimenaren ebazpenean ezarritako baldintza berberetan, eskaera berriz egin beharrik gabe, eta kasuan kasuko ordenantza fiskalean eremu publikoa okupatzeagatik urtero ezartzen den tasa igorriko dela. Terrazan edo beladorean aldaketarik eginez gero, instalazioaren baimena berriz eskatu beharko da.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako berritze automatikoa gorabehera, baimenaren titularra beharturik egonen da erantzukizun zibileko aseguruaren indarreko polizaren frogagiria edukitzera, eta Udalak eskatutakoan hura aurkeztera.

**19.3.** Indarraldia bukatutakoan, berritze automatikoaren kasuetan izan ezik, titularrak okupaturiko eremua lehengoratu beharko du, instalazio guztia kenduz.

**19.4.** Terrazak okupatzen duen eremua zer ostatu jarduerari dagoen loturik, horren negozioaren titulartasuna aldatuz gero baimenaren indarraldiak irauten duen bitartean, kasuan kasuko urtea bukatu arte jarraituko du indarrean baimenak, non ez duen titular berriak bestelakorik adierazten, ezertan ukatu gabe titular berriak lizentzia eskatu behar duela hurrengo urtean terraza paratzeko.

#### **20. art. Baimena iraungitzea.**

**20.1.** Jabari publikoko eta/edo erabilera publikoko lurra mahai, aulki, beladore edo ordenantza honetan arautzen diren antzeko instalazioekin okupatzeko baimenak ondoko arrazoiengatik iraungitzen ahal dira:

- a) Ez berritzea.
- b) Behin-behineko etenaldia.
- c) Errebokazioa.

**20.2.** Udalak espedientea has dezake baimena ez berritzeko, atzeman bada baimenaren baldintzak edo ordenantza honetan ezarritako betebeharrak konplitu ez direla, baimenaren

eskubideari eusteko ordenantza honetan eskatzen diren baldintzak betetzen ez badira, edo baimena zer baldintzetan eman zen, horiek aldatu badira.

**20.3.** Udalak kasu hauetan hasiko du baimena behin-behineko eteteko espedientea:

a) Ebazpen arrazoitua emanez Udalak atzematen duenean interes orokorra dela bide ezin dela lurzorua baimendutako okupaziorako erabili, hala nola obregatik, ekitaldi publikoengatik, larrialdi egoerengatik edo behar bezala arrazoituta dagoen interes publikoko beste edozein arrazoirengatik.

b) Kasuan kasuko tasa ordaintzen ez den kasuetan.

Halakoetan, baimena etenen da harik eta lurzorua terraza bidez okupatzeko erabilera galarazten duena desagertu arte edo kasuan kasuko tasa ordaindu arte.

**20.4.** Udalak kasu hauetan hasiko du baimena errebokatzeke espedientea:

a) Baimena ematea ekarri duten inguruabarrak desagertzen direnean, edo beste batzuk sortzen direnean, bere garaian lizentzia ukatzea ekarriko zutenak.

b) Zer lokalek egiten duen okupazioa terraza bidez, horrexen jardueraren lizentzia iraungitzen denean, edo ondorioz gabe gelditzen denean, arrazoia edozein dela ere.

**20.5.** Aurreko hiru arrazoietakoa edozeinengatik baimena iraungitzeak ez du inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik ekarriko.

#### **IV. TITULUA. ERABILERARI BURUZKO BALDINTZAK**

**21. art. Funtzionamendurako baldintza orokorrak.**

**21.1.** Baimenen edo kontzesioen titularrek instalazioak eta elementu guzti-guztiak behar bezain garbi eta apain mantendu beharko dituzte, eta segurtasun baldintza egokiak betetzen dituztela bermatu.

**21.2.** Baimenen edo kontzesioen titularrak izanen dira terrazen edo beladoreen erabileraren arduradunak, eta eskura dituzten baliabideak erabiliko dituzte establezimenduaren erabiltzaileek bizilagunei eragozpenik ez sortzeko.

**21.3.** Oro har, debekatuta dago honako elementu hauek instalatzea:

a) Ur hornidurak eta saneamenduko harguneak.

b) Soinu erreproduzigailuak, hala nola musika-ekipoak, bozgorailuak eta abar.

c) Salmenta makinak eta jolaserakoak, horretarako baimena behar baita.

d) Edariak eta/edo jakiak prestatzeko instalazio osagarriak, edo gisako beste edozein.

**21.4.** Establezimenduaren kanpoaldean ezin izanen da produkturik, gairik edo hondakinik gorde edo pilatu, ez funtzionamendu orduetan ez bestelakoetan.

**21.5.** Erabiltzaileek eta udal agintaritzak ikusteko moduan ezarri beharko da prezioen zerrenda, berari dagokion udal baimenarekin batera.

**21.6.** Terraza zabalik ez dagoenean, hots, baimendutako ordutegitik kanpo edo edozein arrazoi dela-eta establezimendua itxita dagoenean, honela pilatu eta gorde beharko dira elementuak:

–Lokalen jarduerarako baimendutako ordutegia bukatu ondoren, titularrak egunero kendu beharko ditu eremu publikotik honako elementu hauek: aulkiak eta mahaiak, eguzkitakoak, apaingarriak eta berogailu eramangarriak (aparatura nahiz erregai-botilak).

–Establezimenduaren oporraldietan titularrak terraza osatzen duten elementu guztiak kendu beharko ditu eremu publikotik, salbu eta beren ezaugarriak direla-eta desmuntatze zaila dutenak edo baliabide arrunten bidez lekualdatzen ahal ez direnak. Oporraldiztat hartuko da astebetetik gorako aldia, establezimendua itxita dagoenean.

–Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, honako elementu hauek dute izaera hori: itxiturak, eguzki-babesak eta eguzki-oihalak. Beraz, horiek guztiak uzten ahal dira eremu publikoan.

Eremu publikoan jarraitzeko baimena duten gainerako elementuak (konparaziorako, mahaiak eta aulkiak) txukun eta segurtasunez bildurik utziko dira, betiere terrazarako baimendutako eremuaren barrenean, eta lotzeko elementuak jarrita, udalerriko beste norabait eraman ez ditzaten.

Arau orokor gisa, kanpoaldean ezin izanen dira paratu terrazan zerbitzatzeko lagungarriak diren barrak edo bestelako elementuak, janari-edariak lokaletik beretik zerbitzatu beharko baitira.

Instalaturako altzarien ezaugarriak direla-eta, lokala itxita dagoenean ezin badira horiek kendu eta pilatu, beharrezko neurriak hartu beharko dira, erabiltzea saihesteko.

## **V. TITULUA. ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

### **22. art.**

**22.1.** Beladoreak baimentzeko eskumena duen udal agintaritzak edo Udaltzaingoak, ofizioz, terrazak eta beladoreak edo bertzelako elementu osagarriak kentzen ahalko ditu, eskura dituen baliabideak, bereak nahiz bertzerenak, erabiliz horretarako, badaezpadako eta berehalako neurri gisa, eremu publikoan lizentziarik gabe paratu badira, era orobat biltegitratuko ditu horretarako toki batean, betiere erantzulearen bizkar eta bidezko diren zehapenak ezartzeaz aparte.

Kendutako elementuak berreskuratzeko, egiaztatu beharko dute ordaindu dela dagokien zehapena eta horiek kentzeak eta altxatzeak ekarri duten kostua.

**22.2.** Lizentziak babesten duen aldia bukatu ondoan terrazak eta beladoreak bertan segitzea, diziplina kontuei dagokienez, baimen faltaren parekoa izanen da.

### **23. art. Arau-haustek.**

**23.1.** Arau-haustetzat hartuko dira ordenantza honetan xedatuaren aurka doazen eginak eta ez eginak.

**23.2.** Aplikatzen ahal den araudi sektorialaren arabera zehatuko dira ikuskizun publikoei eta josteta jardueri buruzko legerian nahiz adin txikikoen babesari eta kontsumitzailearen babesari buruzkoan tipifikaturiko arau-haustek.

### **24. art. Subjektu erantzuleak.**

Kasuan kasuko baimenen eta jardueren titular diren pertsona fisiko edo juridikoak dira arau-hausteen erantzuleak.

## **25. art. Arau-hausteen sailkapena.**

Ordenantza honetako arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

### **25.1. Honako hauek dira arau-hauste arinak:**

- a) Terraza edo horren ingurunea garbi edo apaindurik ez edukitzea.
- b) Baimenaren xedeko jardueraren ondorioz, establezimenduaren ondoko hiri altzari eta apaingarrietan kalte arina egitea.
- c) Baimendu baino azalera gehiago okupatzea, %10etik beheiti.
- d) Ikusgai ez egotea baimendutako terrazaren elementuen banaketaren eta azalaren planoan, Udalaren zerbitzu teknikoek behar bezala zigilatua.
- e) Udalaren zerbitzu teknikoek behar bezala zigilatutako planoan adierazitakoaz bestela eta/edo beste nonbait egotea eta banatzea terrazako elementuak.
- f) Terrazaren funtzionamendu ordutegia ez betetzea ordu erditik behera.
- g) Ordenantza honetan zehazten den bertze edozein betebeharrak ez betetzea, arau-hauste larria edo oso larria ez delarik.

### **25.2. Honako hauek dira arau-hauste larriak:**

- a) Bi urteko epean, hiru arau-hauste arin egitea.
- b) Mahaiak eta aulkiak baimenik gabe paratzea, hori legeztatze modukoa denean.
- c) Baimendu baino azalera gehiago okupatzea, %10etik goiti.
- d) Terrazako altzariak egunero kentzeko betebeharra huts egitea funtzionamenduko ordutegia bukatzean.
- e) Soinu-erreproduzigailuen tresnak edo ekipoak paratzea, edo bizilagunei eragozpenak sortzen dizkieten bestelako instalazioak.
- f) Baimenaren xedeko jardueraren ondorioz, establezimenduaren ondoko hiri altzari eta apaingarriak larriki hondatzea, ez badira arau-hauste arin.
- g) Terrazaren funtzionamendu ordutegia ez betetzea, ordu erditik gora.

### **25.3. Honako hauek dira arau-hauste oso larriak:**

- a) Bi urteko epean, hiru arau-hauste larri egitea.
- b) Mahaiak eta aulkiak baimenik gabe paratzea, hori legeztatze modukoa ez denean.
- c) Ordenantza honetan ezarritako baldintzak behin eta berriz eta larriki ez betetzeagatik, muntaduraren funtzionamenduaren ondorioz bizilagunei edo oinezkoiei traba larriak eragitea.

d) Erantzukizun zibilaren aseguruaren indarreko polizarik ez izatea, terraza dela-eta pertsoneri edo gauzei egin dakizkiekeen kalteak estaltzeko.

e) Menik ez egitea funtzionarioen edo agintaritzaren agenteen bidezko errekerimenduei, beren karguan jardutean esku hartzen dutenean, eta haiekiko lotsarik ez izatea edo haien ikuskapena oztopatzea edo hari uko egitea.

f) Udal agintariak edo udaltzainek aginduta, terraza biltzeari uko egitea, terraza dagoen tokian ekitaldiren bat dagoelako.

## **26. art. Zehapenak.**

**26.1.** Ordenantza honetan aurreikusitako arau-haustek egiteak ondoko zehapenak ezartzea ekarriko du berarekin:

1. Arau-hauste arinek 300 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.
2. Arau-hauste oso larriek 600 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.
3. Arau-hauste oso larriek 1.000 eurorainoko isuna izanen dute zehapen.

**26.2.** Oso larrien sailkapena duten arau-haustek, aitzineko artikuluko 3.c) eta 3.f) kasuetakoek, badaezpadako neurritako ekarriko dute jarduera etetea, horren gainean ireki den zehapen espedientea ebazten den bitartean.

**26.3.** Isuna %50 merkeago ordaintzen ahal da, zehapen prozedura ireki dela jakinarazi ondoko hogeita hamar egun natural iragan aitzin pagatzen bada eta inpugnazio orori uko egiten zaiola dioen idazkia aurkezten bada.

Deskontuarekin ordainduz gero, prozedura bukatutzat joko da, ebazpen espresik eman beharrik gabe.

## **27. art. Zehapenak finkatzea.**

Zehapen espedientea instruitu bitartean hautematen diren inguruabar zehatzen ponderazioak aparte utzirik, urratze zehatzak duen garrantziari begiraturik graduatuko dira isunak, arau-hauste bakoitzak espazio publikoaren erabilera komun orokorrari, Udalaren zerbitzu publikoen garapen arruntari eta elkarbizitza publikoko harremanei egiten duen ukipena kontuan hartuta.

Bete beharrekoak bete daitezten agintaritzaren agenteek ematen dituzten jarraibide eta errekerimenduei kasurik ez egitea bereziki hartuko da kontuan, zehapenen zenbateko zehatza finkatzeko tenorean.

Betiere, proportzionaltasun printzipioa kontuan hartuko da zehapenen zenbateko zehatzeko, eta aipatu diren inguruabarrez landa, asmo txarra, berrerortzea edo errepikatzea hartuko dira aintzat.

## **28. art. Zehatzeko prozedura.**

Barañaingo Udaleko Alkatetza izanen da zehatzeko organo eskuduna.

Zehatzeko prozedura, kasuan kasuko salaketaren ondorioz, ofizioz hasiko da, hasteko ebazpen baten bidez. Hartan, prozeduraren instruktorea izendatuko da, kasuan kasuko kargu-orrian zehapen prozedura zehatza egiten duena. Hasteko ebazpena eta kargu-orria ustezko erantzuleari igorriko zaizkio, horrek bere eskubideen alde bidezkotzat jotzen dituen alegazioak egin ditzan 15 eguneko epean. Instruktoarak ez baditu alegazioak baiesten, esku hartu zuten

agenteek txostena egin ondoan, eta, kasua bada, frogak bildu ondoren, kasuan kasuko zehapen prozedura jakinaraziko zaio salatuari. Alegaziorik aurkeztu ezean, ebazpen proposamena igorriko zaio zehatzeko eskumena duen organoari. Zehapenaren ebazpenarekin amaituko da prozedura.

Bai arau-hauste oso larrien eta larrien bai arinen kasuan, prozedura hasi zenetik sei hilabete iragan eta ez bada zehatzeko ebazpenik eman, hura iraungi egingen da eta jarduketak artxibatuko ditu ebazpena emateko organo eskudunak, edozein interesdunek eskatuta edo ofizioz. Arau-hauste arinen kasuan, hasteko datatzat hartuko da interesdunari salaketa jakinarazteko eta alegazio epea irekitzeko igorritako idazkian agertzen dena.

Zehapen-ahalmena erabiltzeari buruz indarra duen araudia aplikatuko da subsidiarioki, baita administrazio prozedurari buruzko indarreko araudia ere.

### **29. art. Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioa.**

Arau-hauste arinak sei hilabeteren buruan preskribatuko dira, larriak bi urteren buruan eta oso larriak hiru urteren buruan.

Arau-hauste arinengatik ezartzen diren zehapenak urtebeteren buruan preskribatuko dira, arau-hauste larriengatik ezartzen direnak bi urteren buruan eta arau-hauste oso larriengatik ezartzen direnak hiru urteren buruan.

Preskripzio epearen kontaketa eta haren etena administrazio prozedura erkideari buruzko araudian ezartzen denari jarraikiz egingen dira.

### **30. art. Zehapenak betetzea.**

Administrazio bidean irmo bilakatu ondoko hilabetean bete beharko dira zehapenak, hau da, zehapenaren ebazpenaren kontra jar daitekeen errekursoaren ebazpena jakinarazi ondoko hilabetean; batere errekurtsorik paratzen ez bada, zehapenaren ebazpena jakinarazi ondoko hilabetean.

Zehapena ordaintzeko emandako epea iraganik, haren ordainarazpena derrigorrezko betearazpenaren bidez egingen da, bidezko diren errekaratu eta interesekin.

Ezartzen den epean ordainarazpena ez gauzatzeak baimena errebokatzeko edo iraungitzeko prozedura abiatzea ekarriko du.

### **31. art. Baimenen errebokatzeta eta baimen berriak eskuratzeko ezintasuna.**

Espazio publikoa erabiltzeko baimena errebokatuko da haren titularrak zehapen irmoa hartzen duenean arau-hauste larriagatik, eta urtebetean, hura irmo bilakatzen denetik, berriz ere arau-hauste larria egiteagatik, beste zehapen irmo bat hartzen duenean. Komenigarri ikusten bada, errebokatzearen ebazpenak zehaztuko du pertsona berari zenbat denboraz ez zaion emanen espazio publikoa erabiltzeko baimen gehiago.

Orobat, baimenik ez dutenek arau-hauste oso larriak egiten dituztenerako, zehapenaren ebazpenak zehaztuko du zenbat denboraz ez zaion emanen espazio publikoa erabiltzeko baimenik; epe hori ez da inoiz izanen urtebete baino gutiago ezta lau urte baino gehiago ere.

### **XEDAPEN IRAGANKORRA.**

1.-2016an baimena jaso duten terrazek eta beladoreek indarraldiari eutsiko diote 2017an, baldin eta ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, kasuan-kasuan espazioak egokitu beharra gorabehera.



2.–Hurrengo urteetan baimen horiek ondoren berritzeko, ordenantza honen 19. artikuluan ezarritakoa bete beharko da.

#### **AZKEN XEDAPENA.**

Ordenantza honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 65. artikuluan zehaztutako epea iragandakoan. Hortik aurrera, indarrik gabe geldituko da ordura arte arlo hori arautu duen edozein udal aurreikuspen edo xedapen.